

## 2018/09/25 ASANBLADAKO AKTA

### 1. Aurreko akta onartu: Guztiek onartu zuten (14)

#### 2. Lan taldeen aurkezpena:

Joan direnek taldeen dinamika ezagutzen dutenez, nortzuk osatzen dituzten azaltzen da :

⑩ Jantoki: Arantza, Vanesa, Laura, Sergio, Ainara

⑩ Kudeaketa taldea: Maribel, Elena, Montse, Ainara, Matias, Asier, Maribel, Javi eta Aitor (berria sartu da)

⑩ Euskera: Kontxi, Unai, Koldo, Iñigo, Iker

⑩ Komunikazioa: Iker, Rodri, Larraitz, Iñigo, Txutxin

⑩ Zaintza: Asier eta bi pertsona gehiago.

⑩ Eskolaz kanpoko ekintzak: Mónica eta Idoia

⑩ Txangoak: Esti, Bea, Cristina, Aitor, Cristina, Elena, Rosa

⑩ Obrak: Leyre, Arantza, Jon, Rosa

Talde guztiak irekita daude jendea onartzeko.

Kudeaketa taldea: Euskal Eskola Publikaren Plataforma

Zubiak Eraikiz Plataformak 17.000 siandura jaso dituzte eta EAJk eta PSEk ez dituzte kontuan hartuko segregazioaren arazoa konpontzeko. Haien egindako akordioa konpontzen dela esaten dute, beraz ez dute aurrera eramango.

Plataformatik harremanetan jarriko dute beste herrialdeekin, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa, ea arazo bera daukaten jakin nahi dute.

1. Gasteizko eskoletako ortuen diru laguntza aurera eramateko, asanbladan onartu behar da. Eskolako kasuan zumez egindako eraikina da.

#### **Denok onartu dute aho batez.**

Eskolak ere zerbait dauka buruan egiteko eta dirulaguntza ere eskatzeko aukera izango du

2. Guraso elkartearen idazkariaren postua aldatu

Ateratzen dena: Sonia Avelino

Sartzen dena: Aitor Toquero Ruilopez

3. Informazio ezberdinak:

⑩ Gaztelaina klaseak: Gela bat bilatu behar da klaseak emateko. Arduraduna: Maribel

⑩ Argazki lehiaketa: Eskolako zuzendaritzarekin hitz egin behar dute dena antolatzeko. Emaila ere sortu behar dute jendeak argazkiak bidaltzeko

⑩ GE gela: Idoiak eta Mónica jasoko dute eta taldeen laguntza behar badute eskatuko dute. Zerbait erosi behar badute esango dute.

⑩ Gaztefilm: Lehen Hezkuntzan proiektu moduan landuko dute. Umek erabakiko dute zein filmak joango diren festibalera. Iaz Ramon Bajo eskolak parte hartu zuen eta aurten Mariturriri ere tokatu zaio. Ideiak onatzen dira proiektua aurrera eramateko.

1. Eskolaz kanpoko ekintzen arduradunen kontratuak handitu (10 ordutik 13ra).

⑩ 16 begirale kontratatu dira eta oraindik xakea emateko begiralea falta da. 2017-2018 ikasturtean 130 umek parte hartu zuten ekintzetan eta aurten aldiz, 320 ume.

Gizarte etxean eskaini diren ekintzak arazoak sortu dituzte begiraleak kudeatzeko orduan eta proiektu bat landu da

⑩ Matroigeriketa: 3 urteko umeentzat eskaini zen baina bete ez denez 2 urteko umeekin bete da.

⑩ Gizarte Etxeak AITEKOren bidez kontratatzen ditu begiraleak eta gure ekintzak aurrera eramateko enpresa honen bidez kontratatu behar izan dugu. Proposatu ziren ordutegiak aldatu dira enpresarekin adosteko. Udalari kanpoko jendearekin lan egitea ez zaio gustatzen eta AITEKOren bidez egin da.

⑩ Gelak kudeatzeko orduan primeran moldatu dira zuzendaritzarekin

⑩ Eusko Jaularitzako eta Udalaren dirulaguntzak justifikatuta daude.

⑩ Begiraleen kontratuak. Aurreko urtean egon diren begiraleei 1€ igoko zaie urtero.

⑩ Abesbatza eta Dantza: Taldeak ez dira atera

⑩ Eskola kanpoko ekintzak taldea telefono bat izateko aukera begiratuko da, whatsapppe gainezka daude.

⑩ 2 pertsonen artean, orduen kopuruan, 3 ordu igotzeko aukera begiratu da eta aurera eraman dugu. Gehiago behar badute haiek ikusiko dute eta beharrezkoa bada berriro eramango dute asanbladara.

1. Galderak

⑩ Fotokopiak: Fotokopiagailu berrian ezin dira pendriveak erabili

⑩ Giltzak:

Gelaren giltzak: Rosa, atezainaren kutxan daude. Erabili eta gero toki berera itzuli behar dira.

Eskolaz kanpoko ekintzak: Gelaren giltzak eta sarrerarena

Postontzia: Ainara, Javi, Idoia, Monica

- ⑩ Lehenengo asanbladaren eguna erabakitzeko orduan, kontuan hartu behar izango da geletako ikasturte hasierako bilerak.
- ⑩ Ekintzetan umeen kopurua igo denez, orduan bazkideenak ere.
  - Zerbait egin behar dugu erakargarriagoak izateko eta jendeak parte hartzeko guraso elkartean, bai asanbladetan bai lan taldeetan.